

noaua

IGANDE HONETAKO II. KULTUR AZOKAN ARROBITXULO AURKEZTUKO DUTE

Postuak, tailerrak, jolasak eta zozketak iragarri dituzte igande eguerdirako Dema plazan / 13



ARGAZKIA: NOAUA

Jakoba Errekondo:
"Gure kultura arbolei
eta zuhaitzei lotuta
dago" / 14

650 Usurbil Bizi
egitasmoak "Hi bai
artista" proiektua
abiarazi du / 18

Ernai: "Usurbilgo
gazteen beharrak
erdigunean jarri
nahi ditugu" / 20

Uxue Trail ekainaren
16an jokatuko da
eta Hurbilagoren
bultzada izango du / 24

ARGILAN ELEKTRIZITATEA

Elektrizitate instalakuntzak
eta mantenimenduak

- Instalakuntza elektrikoak ·Argigintza
- Energia aurrezteak ·Atezain automatikoak
- Kontadoreen zentralizazioa...

943361380 - 629272859



Bordaberri 5, Usurbil



Patrienea Jatetxea
Bazkariak, astelehenetik igandera
Afariak, ostirala eta larunbata

Patri



kale nagusia 14. USURBIL
t 943 362 725 - 688 690 361

Usurbil “eremu tentsionatu” izendatzea, etxebizitza turistikoak geldiarazteko.

Etxebizitza eskuratzeko arazoa
konpontzeko, **Euskadik plan bat du.**

ETXEBIZITZA
ESKURATZEKO
EUSKADIKO
PLAN
INTEGRALA.

#EUSKADIBERRIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y AGENDA URBANA



eremutentsionatua.euskadi.eus



Urolako jubilatuen, Aginagan bisitan

Urola aldeko jubilatuen kuadrilla handi bat Aginaga sagardotegian batu zen duela egun batzuk. Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako jubilatuen elkarteetako kideek egunpasa ederra egin zuten. Lehenbizi, Orion izan ziren. Meza eta gero, Aginagara hurbildu ziren eta bertan bazkaldu zuten, sagardotegian. Giro ederrean joan zen eguna.



Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako jubilatuen elkarteetako kideak, Aginaga sagardotegian.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Mikel Laboa plazatik Aginagara lekuz aldatuko du garbigune mugikorra Usurbilgo Udalak ekainaren 4an. Hilaren 10era arte bertan izango dute, Zubietara lekuz aldatu aurretik. Bestalde, errefusa bilduko den hurrengo eguna igande hau izango da, ekainaren 7a.

Hurrengo ibilaldi osasuntsua, Santuenean

Astearteroko "Goazen Kalera" dinamikaren baitan, hurrengo ibilaldi osasuntsua ekainaren 9an egingo da Santuenean. 10:30ean abiatuko da bertako frontoitik. Amaieran, hamaketakoa dastatu ahalko da. Ekimena herritar orori zuzendua dago, ez da aurrez izena eman beharrik izango.

Buztinzulokoen lanak Sutegin ikusgai

Buztinzulo elkarteek urtean zehar eginiko sorkuntza lanak ikusgai jarriko dituzte datorren aste honetan.

Zeramika taldeak Atxegaldeko plazan du egoitza baina ekainaren 1etik 7ra, Sutegiko erakusketa aretoan ikus ahal izango ditugu azken urtean egindako artelanak.

Larunbateko agerraldira joateko deia egin du Sarek

Garrantzia handiko albiste bat plazaratzeko agerraldi jendetsua deitu du Sarek larunbatean, ekainaren 6an, 11:30ean Arrasateko Monterron parkean. Usurbilgo Sareko kideak goizeko 10:00etan abiatuko dira Arrasatera autoz. Anbulatortik batera joateko deialdia egin dute.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Txitarena

Duelagutxi, inkubategien funtzionamendua ezagutu dut. Osabak, inguruko ezagunei mota ezberdinetako arrautzakeskatu eta bi kaxatan banatu zituen etxean. Hezetasuna eta tenperatura mantendu eta egunean behin eragin behar zitzairen biraderei, arrautzak zartatzen hasi arte.

Moko txiki bat eta pio bakanak sumatzen hasi ziren arrautzetatik. Batzuek, kanporanzko bidea egitea lortzen zuten arren, beste batzuek, laguntza eskertzen zuten azalari tentuz tira eginaz bidea erraztean.

Bitxia da irteten den bizidun hori, oskolaren barruan hazi dela irudikatzea. Klaustrofobia moduko bat sumatzen dut pentsatzen dudana aldiro. Bihurrikariarena eginaz norbere buruari besarkatuta irudikatzen dut bizidun ñimiño bakoitza. Eta gustura jakingo nuke, zein sen edo seinaleri jarraituz erabakitzen ote duten kanpora irteteko ordua noiz demontre heldu ote den. Barrenean nahikoa jan-edana ez dutelako, agian? Jada lepoa ere mugitzeko tarterik ere ez dutelako, akaso? Itolarriak edo aurrera egiteko zein indarrek bultzatzen ote die kanporantz?

Batek daki. Kontua da, irten da ere, plastikozko kaxa heze eta bero batean topatuko zutela euren burua. Eta eurekin batera egon ziren gainerako arrautzak ikusiko zituzten, oraindik gainditzeko beste proba bat zutelarik.




"Moko txiki bat eta pio bakanak sumatzen hasi ziren arrautzetatik".

Beraz, lehen arrautza zartatzen hasi orduko, bisita dextente egiten hasi ginen kaxetara. Irtetea lortu zutenak kanpora lekualdatzen genituen, zerrautsaren eta goritasun-lanpararen goxotan lehortu zitezten. Eta prozesu uste baino azkarragoa izan zen, hasieran azala eta hezurra beste ez ziruditen txita ahulak, lumaje ederra berreskuratuz pixkanaka ponpoxten ikustearena.

Ez da harritzekoa, guretzat ere horren berria eta bitxia zen prozesu honek, ilobarengan sortu zuen miresmena. Txitarik jaio ote zen galdezka zebilen maitasunez, lehen aldiz inkubategiak erakutsi genizkionetik. Irteten hasi zirela jakin zuen egunean bertan, etxera bertaratu eta korrika betean hurbildu zen eurengana beraz, lau urteko atzamar irrikatsuak luzatuz.

Katakumeak baino txikiagoak zirela eta suabe haltzeko azaldu ostean, konfiantzaz hartu zituen eskuetan, zeinen politak ziren gorai patuz eta guri oraindik eman gabeko muxuak emanaz. Eta egoera baretu eta jada arreta gugana itzuli zenean ekin genion ohiko elkarrizketa arruntari. Zer moduz eskolan? Zer egin duzu gaur? Jan nahi duzu zerbait?... Jarraian, baten batek honakoa galdetu zion arte: aizu M., gero zer egin behar dugu hauekin? "Handitzen direnean jan", erantzun zuen bizkor bezain natural.

"BITXIA DA IRTETEN DEN BIZIDUN HORI, OSKOLAREN BARRUAN HAZI DELA IRUDIKATZEA"



Amaia Zubiria omenduko dute.

Ekainaren 13ko kantu-jira berezia izango da

Maiatzeko etenaldiaren ostean, hilaren 13an, kantu-jira berezi batekin agurtuko du uda aurreko dinamika Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Izan ere, Amaia Zubiriari eskainitako saioa antolatu dute ekaineko bigarren larunbaterako. "Zubietako alabak euskal kantugintzari egindako ekarpen itzela aitortu nahi dugu era honetan. Helburu horrekin kantu bilduma bat osatu dugu bere ibilbidean zehar abestutako kanta ezagunenekin. Animatu parte hartzera!", egin dute gonbita. Hilaren 13an, 12:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik.

Usurbil Futbol Taldearen inguruko erakusketa

Klubaren 50 urteko ibilbidea jasotzen duen erakusketa antolatu du Usurbil FT-k datozen asteotarako. Ekainaren 12tik 28ra izango duzue ikusgai Suetegin.

Zuen iragarkia hemen

publizitatea@noaua.eus
747-486-835

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Buru osasunaren inguruko hitzaldia Potxoenean

Buru osasun arazoa duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarte AGIFES-ek hitzaldia antolatu du ekainaren 9an, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean. Elkar laguntzako agente Mikel Merinok bideratuko duen saioaren helburua, "berdinen arteko laguntzak buru osasunaren errekuperazio-prozesuetan duen balioa azaltzea izango da", bestela esanda, "antzeko sufrimendu egoerak bizi izan dituzten pertsonen arteko laguntzak izan dezakeen eragin positiboari buruz ariko da". Buru osasunaren errekuperazio eredia izango da mintzagai saioan zehar. Izan ere, prozesu



Mikel Merinok eskainiko du hitzaldia.

horiatarako AGIFES elkarteak urteak daramatza elkar laguntzako programak sustatzen. Saioa herritar orori zuzendua egongo da. Bertan, "elkar ulertzean, enpatian eta gertutasunean oinarritutako laguntzak pertsonen ongizatean izan dezakeen eragin positiboa azpimarratuko da".

Udaberri Festa amaiera Zubietan

Zubietako guraso elkarteak antolaturiko Udaberri Festa, hurrengo astean borobilduko dute, ekintza hauekin:

Azken ekitaldiak

Ekainak 11, osteguna

- 16:45 Altxorraren bila gynkana.
- 18:00 Apar festa.

Ekainak 12, ostirala

• 16:45 Ekitaldiak: Haurren funky eta antzerki emanaldia, pintxo eta tortilla lehiaketa, afarimerienda elkarrekin, 'Zubietako talentu bila', bingoa. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak.

Gure Pakeakoen hurrengo ekintzak

Ekainak 6, larunbata

• 09:00 Ohiko lekutik irteera Iruñera. Hamaiketakoa, norbere kontura. Iruñea ezagutuko da turismo-gidari batekin. Bazkaria Doneztebeko Elortxuri jatetxean egingo da. Bazkalostean, norbere kasa paseoa, kafea... Prezioa: 50 euro pertsona bakoitzeko.

Ekainak 13, larunbata

• 18:00 "¿Quién ha matado a Verónica?" Binahi antzerki taldearen emanaldia Sutegin. Zehaztasunak: "Emakume baten gorpua aurkitu dute hondartzan eta polizia ikertuta egingo du, nola eta nor izan den jakiteko".

IKA-MIKA

Noiztik bizi gara lanerako?

JUANJO LERTXUNDI

Egunak azkar pasatzen dira. Goizean jaiki, lanera joan, egin beharrekoak bete, eta ia konturatu gabe iristen gara egunaren amaierara. Batzuetan sentazioa dugu egun oso lanean edo lanaren inguruan eman dugula, eta hala ere, ez dakigula oso ondo zertarako.

Askotan, ohitu egiten gara horrela bizitzera. Egunak aurrera ateratzera, egin beharrekoak betetzera, eta

hurrengo eguna iristera. Ez dugu beti gaizki sentitzen, baina ezta benetan ondo ere. Bizirauten ari garela ematen du, baina ez dugula benetan bizi.

Askotan esaten dugu bizia atera behar dela. Baina, bidean, batzuetan bizia bera galtzen ari garela ahazten zaigu. Denbora, energia eta arreta gehiena lanean jartzen dugu, eta pixkanaka, beste gauza batzuk atzean geratzen dira.

Horren erdian, geure buruarentzat tarte gero eta txikiagoa bihurtzen da. Ez da soilik atsedeen faltaren kontua; batzuetan, bizitza bera urrutitik

bizitzen ari garela ematen du. Eguna bete egiten dugu, baina ez dugu beti sentitzen gure bizitzan benetan presente gaudenik.

Agian lana ez da arazoa. Agian galdera beste bat da: noiztik hasi gara bizitza lanaren inguruan antolatzen, eta ez lana bizitzaren inguruan? Izan ere, bizia ateratzea beharrezkoa da, baina ez luke bizia bera eramateraino iritsi behar. Eta agian, azkenean, pobrezia handiena ez da diru falta, bizitzeko denbora eta zentzua falta izatea baizik.

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Gai ilustratua (1955 inguru)

Orduan oraindik ez telebistarik, ez internetik eta etxe askotan irratia errege. Konkurtso bat entzuteko ohitura handia omen zuten Zendoianean ere. Lehiakideei gai bat aukeratzeko eskatzen zieten aurretik: kirola, kultura, artea, historia...

Mariak egun hartan lehiakideak hautatutako gaia entzun ez, eta horrela galdetu dio Joxe Antonio seme gaztetxoari: -Zer gai aukeratu du? -Joxe Antoniok, ziurtasunez: 'sepultura general'!

Praxku "Indianoa"

Praxku "Indianoaren" arreba jaio berria eraman dute bataiatzera, eta elizatik bueltan, etxean gelditutakoek horrela galdetu diete haurra eraman dutenei: -Zer izen jarri diozue? -Hauek, dudak: Ez dakit ba, Aliajandra edo.

Handik urte mordo batera, ezkontzeko paperak egitera joan da Praxkuren arreba hori, eta orduan jakin du bere izena Dominga dela.

Erregistroa dela eta ez dela, Dominga beti Alajandra deitu zuten.



2022ko ekainean eginiko lehen Kultur Azoka. Ekainaren 7koak elkargunearen proiektua plazaratuko du.

"Datozenak esperimentatzeko gogoz etor daitezela"

Bigarren Kultur Azokak hartuko du herriko plaza ekainaren 7an. Herriko sortzaileen hamarnaka postu izango dira, sorpresak izango dituen ekimenean. 2022an eginiko edizioarekin alderatuta, oraingoan, urteotan eraikitzen joandako Arroitxulo elkargunea aurkezteko baliatuko dute.

Duela lau urte egin zen lehen aldiz Kultur Azoka. Zer irudikatu nahi izan zenuten?

Duela lau urtekoa, Kulturgunearen herri aurkezpen bat egiteko modu berritzaile bat izan zen eta arrakastatsua, aldi berean. Kulturgunearen filosofia bera ere islatu nahi genuen. Usurbilgo kultur ekosistema guztia nahi izan zen plazan jarri: kultur zaleak, sortzaileak, komunikazioan dihardutenak eta transmisioan edo hezkuntzan ari direnak. Postuetan ez genuen lehentsi produktuak saldu eta erostea, baizik eta sormen prozesuak islatzea eta zetorrenak aktiboki parte hartzea. Azken produktua edo emaitza ikusten dugu beti, baina sortzai-

learen lan prozesu luzea erakutsi nahi genuen postu horietan. Lortu zen garrantzia ematea sortzaileari, sormen prozesuari, sorkuntzak norbanakoengan nahiz herrian bertan duen garrantziari. Izan ere, Usurbilgo Kulturgunearen helburua da kulturzaleak sortzea eta horretarako, sorkun-

"KULTUR EKOSISTEMA ELKARTZEA, HERRIRATZEA, IZANGO DU HELBURU NAGUSIETAKO BAT"

tzak eta sortzaileek berebiziko garrantzia dute. Horrez gain, herriko sortzaileak plaza berdinean elkarrekin jarrita komunitate izaera sustatu eta aliantzak sortzeko ere balio izan zuen.

Ordutik, Kulturgunea bere baitan hartzen duen Arroitxulo elkar-

"ARROBITXULOREKIN EGIN DUGUN PROZESUA BESTE MODU BATERA AURKEZTEKO BALIATUKO DUGU AZOKA"

gunea eraikitzen eta garatzen joan zarete. Nola islatuko duzue igandeko azokan?

Oinarria antzekoa izango da. Plazak antzeko itxura hartuko du. Ekosistema elkartzea, herriratzea izango du helburu nagusietako bat. 2022ko azoka Kulturgunea aurkezteko baliatu zen bezala, orain, Arroitxulorekin egin dugun prozesua beste modu batean aurkezteko baliatuko dugu. Izan ere, azken boladan aurrerapauso handiak eman ditugu. Eraikinen inguruko informazioa eta irudiak erakutsiko ditugu. Guk indarra jartzen dugu behin eta berriz proiektua bizirik mantentze horretan. Arroitxulo helmuga bezala ez dugu ikusten, bide gisa baizik. Gonbita egingo dugu prozesu horretan parte hartzera.

Elkarguneko gainerako eragileek parte hartuko dute azokan?

Postuak, nagusiki, kultur sortzaileek eta antolatzaileek jarriko dituzte, baina bereziki, lantalde motorean aritu diren gainerako eragileek ere parte hartuko dute. Arroitxulori keinu desberdinak egingo zaizkio; hari buruzko informazio postua, elkarguneari buruzko galderekin jolastu eta zozketan parte hartzeko tonbola (amaierako ekitaldian, sortzaileen lanen otarrak zozketatuko ditugu), edota Arroitxuloren irudia serigrafia-tzeko postua egongo da. Beraz, gonbita luzatzen dugu etxetik, poltsak, kamisetak, jertseak... eramatera. Etorbizuneko Elkarguneari kultur sormenerako gune espezifikoa izango du bigarren solairuan. Arroitxulok beteko duen rol hori ere sortzaile horiek guztiak biltzea horren bueltan. Islatu nahi dugu baita Arroitxuloren bueltan zer gertatuko den eta ideiak jaso ere bai, zer gertatzea nahi den. Jabetu gara eragileak elkarrekin askoz potentzial handiagoa dugula, baita transmisiorako ere. Plazan hori ere



Udarregiren omeneko eskulturaren bueltan, maiatzaren 22ko ospakizunen sustatzaileak eta omenduen senideak.

60 urte geroago, gaurkotasun betean

60 urte bete dira, Remigio Mendiburuk "Udarregi" bertsolariaren omeneko frontoi ondoko eskultura inauguratu eta haren bueltako ospakizunen artean, Rikardo Arregik euskararen aldeko diskurtso gogoangarria egin zuenetik. Biak ekarri zituzten gogora hilaren 22an.

ARITZ LASARTE

650 Usurbil Bizi herri egitasmoak, Udalak eta NOAUA! K.E.-k "Euskararen eta artearen Usurbil: Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago" ziklo berezia antolatu zuten, 1966ko maiatzaren 22ko une haren urtemugaren harira. Arregiren Usurbilgo diskurtso hura oinarri hartuta Ainara Mendiolaren "Zutik" filma eskaini zuten Sutegin. Segidan, haren zuzendari Mendiola-rekin berarekin, Arte Ederren Fakultateko dekanoa Ismael Manterolarekin eta Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek solasaldia egin zuten Sutegiko auditorioan. Saioa Ion Telleria buru zuen Naiz irratiako lantaldeak gidatu zuten. Duela 60 urte euskarak eta euskal arteak bizitako ga-

raia gogora ekartzeaz gain, aurrera begira jarri ziren hizlariak. Sutegira joandakoek ikusi berri zuten filma izan zuen abiapuntu solasaldiak. "Zutik"-en zuzendari Ainara Mendiolak azaldu zuenez, Rikardo Arregiren anaia Mikelek Rikardok Usurbilen eginiko diskurtsoaren grabaketa bat eskuratu zuen eta ikus-entzunezko lan horren ekoiztetxe Maluta Films-i proposatu zion proiektua. Berak gogorarazi moduan, Usurbilgo diskurtso hura

**"USURBILGO
DISKURTSO HURA
MUGARRIA IZAN
ZEN RIKARDOREN
IBILBIDEAN"**

"mugarria izan zen Rikardoren ibilbidean", gaurkotasunik galdu ez duena. "Zutik" filma sortzea, "Rikardo Arregi hobeto ezagutzeko aukera" izan dela azaldu zuen Mendiolak Sutegin. Eskisabelentzat Arregiren diskurtsoa "hala uzten badira gauzak" bere horretan, euskarak bizi zezakeen galararen inguruko jakinarazpena da. Nabarmendu zuenez, "garai hartako gaztediak egindako ekarpenetako bat diagnostikoa" eta "bizirik jarraitzeko deia" izan zen.

**"EGUN,
ATZERAPAUOAK
GERTATZEN ARI
DIREN ZIKLO BATEN
AMAIERAN GAUDE"**

"Euskal artearen frontea"

Garai hartan euskal arteak bizitako pizkundea ekarri zuen gogora Manterolak. "Euskal artearen frontea" heldutasunera iritsi zela zioen. 60. hamarkada erdialdean, Arregiren Usurbilgo diskurtsoaren garaian hain zuzen, euskal artista zenbaitek (tartean, Jose Luis Zumetak edota Remigio Mendiburuk) sortutako Gaur taldea aipatu zuen. "Gogo izugarria zuten arte guztiak elkartzeko", eta testuinguru horretan ulertu behar da, adibidez, bere esanetan, "Zumetaren frontoiko murla normaltasun handiz" hartu izana orduko jendarteak. Berarentzat, "aldaketa handienetakoa" gerora heldu zen, diktadura amaieran, ardura politikodun postuetan "euskaltzaleak eta bertako kultura sustatu nahi zutenak" sartzen hasitakoan. Ildo horretan, herri honetan duela sei hamarkada bizitakoa gerora helduko zenaren "lehen urrats" gisa definitu zuen Manterolak. Hari horri tiraka mintzatu zen baita Eskisabel. Mintzagai zuten duela 60 urteko testuinguru hartan, "gaur egunera ekarritako euskararen normalizazio eta biziberitzearen zutoin eta egiturak han jarri ziren". Izan ere, bere esanetan, "dena egiteke" zegoen, "hizkuntza bera zegoen egiteke". 1968ko Arantzazuko bilkura ekarri zuen gogora, "euskara batuaren oinarriak" ezarri ziren unea. Garai hartan, Arregik eginiko ekarpena ere goraipatu nahi izan zuen; "bere ekarpen handienetakoa, helduen euskalduntzeari, alfabetatzeari emandako garrantzia" hain zuzen.

Orduko testuingurua aztertuta, euskararen etorkizunaz mintzatu ziren. Bere ikuspegitik, egun atzerapausoak gertatzen ari diren "ziklo baten amaieran" gaudela zioen, "ziklo berri bat hasi" beharraz mintzatu zen. Horregatik, Rikardo Arregiren duela 60 urteko diskurtsoa gogora eka-

rrita, "garai hartako dena egitearen oihartzuna" sentitzen duela zioen Eskisabelek, begirada "aurrera egite horretan" jarrita. Egite horretan, gakoa, euskaltzaletasuna "gaur egungo munduan ondo kokatzea" izango da. Manterolaren esanetan, duela 60 urteko euskal artistek "ahalegin handia egin zuten" alor hau duintzeko, kultura zela esateko". Bere hitzetan, egun ere, "zerotik hasteko hobeto kokatuak gaude euskaldunak". "Zutik" filmaren zuzendariak gogora ekarri zuen, Rikardo Arregik zioena, "gizarte osoa euskaldundu beharra zegoela, euskarak biziraungo bazuten".

"Rikardok nahi zuena, hor sortu zen"

Sutegitik bisita gidatu berezia egin zuten Udarregiren omeneko eskultura pareraino, Jakoba Errekondorekin eta Maialen Lujanbiorekin. Errekondok duela 60 urte Usurbilen izandako une entzute-tsu hari testuingurua, garaiko pasaia erantsi zion. Lujanbiok bertsoz girotu zuen hitzordua. Alfabetatu gabeko Udarregi eta alfabetatzearen aldeko sustatzaile nagusi Rikardo Arregi lotu zituen, ibilaldi amaieran eskainitako bertso saioan. Bisita gidatuak omenetako Rikardo Arregiren eta Remigio Mendibururen zenbait senide elkartu zituen, hainbat bisitari eta herriki-deekin batera.

Jakoba Errekondok ibilaldia "alfabetatzearekin lotu nahi nuen, Udarregiren alfabetoarekin eta liburuekin". Liburuekin hasita, gogora ekarri zituen, egungo Sutegin kokatua zen La Salle bere haurtzaroko ikastetxea. Rikardo Arregik bere garaian helduak euskaraz alfabetatzeko eginitako ekarpenaren harira, euskaraz alfabetatzeko gau-eskola izan zen. "Rikardok nahi zuena, hor sortu zen". Hantxe hasi zuten bisita gidatua, La Salle ikastetxeko patioa izan-



Euskaraz eta euskal arteaz mintzatu ziren maiatzaren 22an Sutegin eginitako solasaldian.

dakoan. Baratzen eremua zen egungo Askatasuna plaza. Fraileen kopurua murrizten joan ahala, "gurasoek hartu zuten haien esku eskolaren ardura", gerora Udarregi ikastolan bilakaraziko zutena. Aurretik, fraileak alde egitekotan zirenean, leihotik behera liburuak nola bota zituzten oroitu zuen Errekondok, "herriari eskolak bere ondasunak utzi nahi ez izateagatik. Liburu horiek erre egin ziren".

Dema plazara jo zuten gero, bisita gidatuari segida emateko; "plaza hau herriaren bihotza zen". Errebote plaza zen garai hartan, estali gabeko pilotalekuarekin, trafikodun alboko bi kaleekin. "Oraindik errebote plaza markak badaude". Demarena ere bazen, idiena, "handiena, bai zabalera eta luzeeran". Eta haren ertz batean, Salvatore eliza. Bere alboko kale izena duen Aginagako Etxebestek, bere garaian, Mexikon aberastu

"BISITA GIDATUAK OMENDUEN ZENBAIT SENIDE ELKARTU ZITUEN HERRITARREKIN"

eta hildakoan oinordetzan dirutza utzi zuen Aginagan egungo Eliza Zaharra eta Salvatore elizako teilatua eta dorrea eraikitzeko, Errekondok azaldu zuenez.

Aurrenetakoa

Eskultura ondora jo zuten azkenik. Haren kokaguneak "asko esaten digu, hau nola pentsatua izan zen". "Frankismo gordinenean", askotariko diziplinatako sortzaile gazte grinatsuaren belaualdia zegoen; tartean, herri honetako seme Zumeta, Tapia edota Artze anaiak. Euskarari lotutako astea antolatu zuten. Jende askoren laguntza handia izan zuen ziklo hark. Horregatik, abiapuntu gisa definitu zuen Errekondok, Usurbilen 1966ko maiatzean jazotakoa. Horren emaitza nagusizat jo zuen aurrean zuten eskultura. Zergatik Udarregi? 1829an Aian jaiotako bertsolariak haur-

"ESKULTURA TOKI PUBLIKO BAT OKUPATZEN AURRENETAKOA IZAN ZEN"

tzarora Usurbilen igaro zuen. "Ez zekien irakurtzen, idazten", baina bazuen "halako grina berak egindakoa hurrengoratzeko". Horretarako, egun, Mendibururen eskulturaren bertan, nahiz Udarregi ikastolaren irudia den horretan aurki ditzakezue berak asmatutako alfabetoaren arrastoak. Bertso bat bururatzen zitzaionean, "etxeko ganbaran egiten zituena marka batzuk". Tarteka, Usurbilgo idazkariari deitzen zion, bere ganbarara joan zedin. Markak irakurriz, Udarregi bertsoak abestu eta idatziz jasotzen zituen atzean zuten idazkariak. Horri guztiari zor zaio, bere esanetan "miragarria" den Remigio Mendibururen eskultura, estilo horretako bakanetakoa, bereziki zura lantzen baitzuen. Usurbilgo lan hau, "toki publikoa okupatzen aurrenetakoa izan zen". Horatik gaur egunera, begira, herri erdigunean bertan kaleetan dugun kultur sorkuntza. Errekondoren esanetan, "dena hemendik hasten da", berak aipatutako "zurrumbilo" hartatik. Duela 60 urte sortutako "zurrumbilo" hark bizirik dirau bere ustez, oraindik Usurbilen.



Herrikideek hartu zuten hitza, "Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean" solasaldian.

"Espazio hauek beharrezkoak dira. Zaindu behar gara"

Heriotzaren gaia ertz ezberdinetatik jorrazteko Udalak eragile gehiagorekin antolatuturiko "komunitatetik, heriotzaz" zikloak aurrera darrai. Iñurri elkarteak parte hartuko du ekainaren 11ko hurrengo saioan. Asteotan, zaintza paliatiboak edota heriotza eta gaztetasuna izan dituzte hizpide.

ARITZ LASARTE

"Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean" hizpide hartuta aritu ziren maiatzaren 7an solasean Sutegin. Hainbat herrikideren lekukotzak entzun ahal izan ziren, Bidegin elkarreko Izaskun Andonegik bideraturiko saioan. "Espazio hauek beharrezkoak dira. Zaindu behar gara", nabarmenduzuen. Estreinakoz, halako gai bati buruz herritarrak plaza publikoan hitza hartzen ikusi eta entzun genituen. Andonegik ekitaldi hasieran, Sutegi goraino bete zuten herritarrek bizi zezaketena "eraldatzailea" izan zitekeela nabarmendu zuen; bizitakoa sentitu eta sentitutakoa baimentzera gonbidatu zuen. Nabarmena izan zen hitzaldian zehar, nahiz

amaieran, heriotzaren tabuari zer nolako arrakala egin zitzaion.

Askotariko bizipenak

Maite dituzten hildakoen senide eta lagunak bildu zituen ekitaldiko oholtzak. Norberak bere lekukotza eskaini zuen. Eneko Eizagirrerri 19 urte zituela hil zitzaion aita. Suizidioaren errealitatea ekarri zuen

"ETXEKO EGITURA ERORI ZEN. NIK ONDO EGON NAHI NUEN, GURASOEK ONDO NENGOELA IKUSTEKO"

Sutegira. Inguruko laguntza ezinbestekotzat jo zuen, hasieran ulertezina zitzaiona barneratzen joateko. "Konturatu nintzen, epaitu gabe ulertu behar nuela aita", azaldu zuen. Unai Lejardiri istripuz hil zitzaion anaia Julen 2023. urtean. Hilabete igaro zen ezbeharretik bere heriotzera. "Etxeko egitura erori zen bapatean. Nik ondo egon nahi

"NATURALTASUNEZ HITZ EGIN ZIGUN HERIOTZAZ. LASAITASUNAREKIN ETA BAKEAREKIN LOTZEN ZUEN"

nuen, gurasoek ikusteko ondo nengoela", oroitu zuen. Biek aipatu zuten une haietan komunitateak izandako rolgakoa, "herrian sentitutako ulertotasuna, laguntzeko gogoia, hurbiltasuna".

Mendian istripuz zendu zitzaion laguna 2024ko abuztuan Mikel Lizarragari. Hiru lagun joan ziren eta bi hil ziren ezbehar hartan. "Emozioen zurrunbilo modukoa" esperimentatu zuela ekarri zuen gogora Sutegiko solasaldian. Esperientzia hartatik hainbat hausnarketa plazaratu zituen. Batetik, zendutako lagunarekin bizitako "hil aurreko esperientziek beste balio bat dute orain", zioen; bestetik, "ondoan daudenei balio gehiago emateko" eta heriotza bizitzaren parte dela onartzeko esperientzian garrantzia azpimarratu zuen.

Gaixotasun bat tarteko, Amagoia laguna zendu zitzaientetik hamar urte bete berriak ziren Lur Etxeberriak eta Izaro Aizpuruak hitza hartu zuten. Atzera bueltarik gabeko prozesuan zela jakinarazi ostetik hilabetera hil zen. "Esperientzia gogorra izan zen", Lurren esanetan. Asko eskertu zuen Amagoiak erakutsitako eskuzabaltasuna. Zendu aurretik, "naturaltasunez hitz egin zigun heriotzaz. Lasaitasunarekin eta bakearekin lotzen zuen". Amagoia zendu eta lau urtera minbizia diagnostikatu zioten Anderri, Izaroren bikotelagunari. Bi urteko prozesuaren ondotik hil zen. Heriotza hura bereziki, bi seme gaztetxorekin amatasunetik egokitu zitzaion bizitzea. Gaixotasun prozesua izanik, Izaroren esanetan, kasuotan, prestatzen joateko "denbora abantaila da, baina bidea luze egiten da". Esperientzia honek balio izan dio argi ikusteko, "prozesu guztiak direla balekoak, bakoitzak ahal duena egiten du". Ezinbestekoa den laguntzaren beharra nabarmendu zuen, gertukoena eta baita profesionalena

ere. Hor sortzen da sarritan zailtasuna, doluan dena lagundu nahi baina ezin jakin nola. Izan ere, prozesu horietan, Andonegik oroitarazi moduan, "inork bizi nahi ez duena islatzen ari gara". Horregatik, nabarmendu zuten ze beharrezkoa den gertatzen ari zaigunari hitza jartzea. Aizpuruak gogorarazi moduan, "komunitate gisa egin dezagun lanketa bat da".

"Ulertua sentitzea"

Dolu prozesu horretan lagun-garriak izan ohi dira agur kolektiboak. Sutegin hitza hartu zutenek halakoan garrantziaz ohartarazi zuten. Unai Lejardik anaiaren kuadrillak antolaturiko agur ekitaldia ekarri zuen gogora. Egun horri beldurra bazion ere, "zoriontsu bukatu nuen, eskertua. Zoragarria izan zen". Argi oroitzen du nola anaia erdigunean jartzeak "zer nolako maitasuna piztu zuen". Eizagirrek "mundu errelera itzultzen hasteko lehen pauso" gisa definitu zuen, une horretan berak bizitakoa; aita hil ostean, "ulertua sentitzea". Errituek eskainitako laguntza nabarmendu zuen Lizarragak. "Indibidualki bizi dena kolektibizatzen laguntzen du", zioen. Norbere beharretatik hitz egiten jakiteak duen garrantzia nabarmendu zuen.

Agur kolektiboek, besteak beste, heriotzaren presentzialtasunean duten eragina ere mintzagai izan zuten. Izarok oroitzen du nola semeetako batengan, ahazteko beldurra azaleratu zen. Falta denari presentzia ematea gaketatzen jo zuten. Izan ere, Bidegin elkarteko ordezkariak azaldu moduan, "nor bait maitatzea posible da ezagutu gabe, jasotako bizipenei esker". Horretarako, ordea, presentzia, lekua eman eta hitza jarri behar zaio, bestela, "isiltasunean bihurtu eta desagerpena dator".

Hori hala dela ziurtatu zuten hizlariek. Anaiak uzitako era-



Maiatzaren 7ko solasaldia ikusgai duzue osorik, Usurbilgo Udalaren Youtubeko @usurbiludala4589 helbideko kanalean.

ginagatik oso eskertua agertu zen Lejardi. "Lotura sendoagoa dut orain, bera bertan nuenean baino". Bide horretan garrantzitsutzat jo zuen "dolua arintzeko hitza jartzea" eta norbere erritmoa errespetatzea. Horrekin batera, "eman lekua emozioei", galdegin zuen Eizagirrek eta behar izanez gero, "laguntza eskatu", gaineratu zuen. Izan ere, entzundakoekin nabarmen hunkituak ziren Sutegiko ikus-entzuleei zuzenduz adierazi ziren, "pentsa zuetako bakoitza gabe, jende askok sufrituko luke". Horretarako, kultur-etxeko auditorioan sortutako bezalako espazioen garrantzia nabarmendu zuten eta halako eremu gehiago sortu eta hedatu beharra zegoela adierazi ere bai.

Dolu nahiz gaixotasun larrien prozesuetan direnak laguntzen dihardu Bidegin elkartek.

**"NORBAIT
MAITATZEA
POSIBLE DA
EZAGUTU GABE,
JASOTAKO
BIZIPENEI ESKER"**

Bilgune horren lana aitortu nahi izan zion Eizagirrek haren sustatzaile Izaskun Andonegiri. Berak halako espazioetan "asko ikasten dut" nabarmendu zuen. Aurrerapausoak emateko deia egin zuen. "Has gaitezke nahi ez dugun pauso hori ematek". Hortxe utzi zigun gonbita.

Sutegira joandakoek ere hitza hartzeko aukera izan zuten. Hunkituta, belaunaldi helduagoko herrikide batek zioen, "gure belaunaldia non gauden, zuek non zaudeten, ikaragarriko prozesua eginda". Beste herrikide batek miresmena adierazteaz gain, zaurgarritasuna plaza publikora ekartzeagatik esker ona helarazi zien hizlariei. "Maitasun handia jaso dut", nabarmendu zuen. Datorren astean segiko du zikloak, Usurbilen egoitza duen Iñurri elkarteko eskutik. Bilgune berak, "Hil Arte

**"GURE
BELAUNALDIA NON
GAUDEN ETA ZUEK
NON, PROZESU
IKARAGARRIA
EGINDA"**

Bizi!" jaia antolatu du hilaren 14rako.

"Komunitatetik heriotzaz"

Ekainak 11, osteguna

• **18:00** Zuzeneko podcasta, Iñurri elkartearen eskutik: "Heriotzaren aurrean". Eider Casanova iñurriak gidatuko du eta Eli Bergaretxe, Ana Jimenez eta Beñat Iraola, bakoitza bere lekutik heriotzaz garden hitz egiten ariko dira.

• **Sarrerak:** gonbidapenak aurrez eskuragarri, usurbilkultura.eus plataforman.

• **Antolatzailea:** Udala.

• **Laguntzaileak:** Bidegin, Iñurri, Hil Arte Bizi, Matia.

Ekainak 14, igandea

"Hil Arte Bizi!" jaia

• **17:00-17:30** Liburu aurkezpena Iñurriren egoitzan (garai bateko Pauma arropa dendaren lokalean).

• **17:00-19:00** Umeentzako eskulanak Artzabalen.

• **18:00-20:00** Hil Arte Bizi bilduma berriaren aurkezpena eta azoka Artzabalen.

• **19:00** Kontzertu akustikoa, Esanezin Artzabalen.

• **19:00** Pizza-jatea Ktxo pizzeriaren eskutik Artzabalen.

• **Antolatzailea:** Iñurri elkarte.



Bea Egizabal (ezkerrean) eta Anduriña Zurutuza (eskuinean) klownak Zubietako elizan arituko dira larunbat honetan.

"Jendeak umorez egiten diren gauzak balioztatzen ditu"

BEA EGIZABAL ETA ANDURIÑA ZURUTUZA KONTALARI KOMIKOA ETA PAILAZOA

Duela hogeit hamar urte ezagutzen dute elkar Egizabalek eta Zurutuzak, eta aspalditik zuten elkarrekin zerbait egiteko gogoia. "Jo!" antzezlanarekin eskainiko dute larunbatean, 19:00etan, Zubietako elizan.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Zer ikusiko dute ikusleek larunbatean, Zubietako elizan?

Bea Egizabal (B.E.): Oso lagun izandako bi lagun, Grego eta Sorkun, aspaldi elkar ikusi gabe, eta hainbeste urte ikusi gabe zergatik egon diren azaltzen da. 20 urte geroago topo egingo dute.

Klown izatetik bizi daiteke?

Anduriña Zurutuza (A.Z.): Erraza ez da, baina zoragarria da. Asko gustatu behar zaizu, eta gauza guztietan bezala formatu egin behar zara eta lan asko egin behar da. Beste gauza guztiak bezala da. Gure kasuan, emakumeak eta pailazoak izanda, ez da erraza.

B.E.: Klownak arte eszenikoetan ez dakigu zer garen, ez baitzara aktorea. Klown obra bat baldin baduzu non egin dezakezu hori? Askotan umeei zuzendutako obrak izaten dira, zirkuan... Hor beste zirkuitu bat dago ordea. Oso zaila da kultura arloan sartzea. Beste-

"KONTURATU NAIZ GUSTUKO DUDANA DELA UMOREA ESPERO EZ DEN ESPAZIOETAN EGITEA"

ANDURIÑA ZURUTUZA

tik, guk inprobisatu egiten dugu asko, beraz, desberdina da. Uste dut klownoi ez gaituztela asko aintzat hartzen, eta emakumeoi ere ez gehiegi. Gainera, gai batzuk hizpide badituzu, feminismoa besteak beste, ez gara kultura, eta gizarte zerbitzuetako ikuskizu-

"ORAIN JO! ANTZEZLANAREKIN KULTURAKO ZIRKUITURA SALTO EGITEA LORTU DUGU"

BEA EGIZABAL

na gara. Hori da zailena. Orain "Jo!" antzezlanarekin kultura zirkuitura salto egin dugu.

A.Z.: Ikuskizunean daukagu testua euskaraz, feminismoa, umorea eta antzerki fisikoa... Denetatik du. Ikuskizunean dena bildu dugu eta salto txiki hori egiten laguntzen ari zaigu. Eta kulturaren sartzen ari gara.

Zer ematen dizue zuei klown izateak?

A.Z.: Nik urteak daramatza dala konturatzen ari naiz gustuko dudana umorea espero ez den espazioetan egitea dela: ospitaleko gela batean umorea egitea magikoa da, jardunaldi batzuetan ez dute espero, sorpresa bat da, eta bat-batean gelako giro hori hausten duzu. Horrela, umorea beste modu batean iristen da.

B.E.: Obra behar bat da. Duela hogeit hamar urte ezagutzen dugu elkar, eta hasieratik ondo eraman gara eszenatoki gainean. Horregatik, obra honekin asko disfrutatzen dugu. Egia da, inprobisazioak eta berak aipatzen dituen leku horietan adrenalina oso altua da.

Gainera, nahi ditudan gai sozialak umorearen bitartez salatzeke aukera ematen dit.

Nola ikusten duzue klownen egoera?

B.E.: Gu Oihulari Klown taldean hasi ginen. Zuzendari bat genuen, eta hura iristen zen tokira gu iristen ginen. Zu zure kabuz jartzen zarenean desberdina da zuk zure kabuz bilatu behar duzulako. Nik uste normalizatzen egon dela. Sudurgorriaren mugimenduak zirkuetatik kanpo atera du, baina ez dut uste aintzat hartzen denik. Bestalde, jendeak umorez egiten diren gauzak balioztatzen ditu, eta nolabait errazagoa jendearentzat eta eragina eduki dezakeela. Bai uste dut umoreari garrantzia gehiago ematen zaiola.

A.Z.: Desberdina da. Guri krisiak, pandemiak etabarrek kalte handia egin digute.



Hondakinen kudeaketari buruz eginiko ikerlanaren egileak; Udarregi ikastolako LH2. mailako ikasleak.

LH2ko ikasleak: "Ez izan alferrontzia, erabili zaborrontzia"

Hondakinen kudeaketari eta gai horretan herritarrok ditugun ohiturei lotutako proiektua landu dute Udarregi ikastolako LH 2. mailako ikasleek. Emaitza argigarri bat baino gehiago jaso dute lanketa horretatik. Udarregik ekainaren 6an antolaturiko Ikastola Egunean parte hartuko dute egileek, gainerako ikaskide, guraso eta langileekin batera.

Herri honetako hondakinen kudeaketaren azterlan ederra egin dute irudian dituzuen Udarregi ikastolako LH2. mailako ikasleek. Berriki aurkeztu ziguten landu duten proiektua. Azaldu zigutenez, ikaskideetako baten gurasoaren eskutik jaso zituzten gai horri buruzko xehetasunak, kale garbitzailea da bera. Gaiarekiko kezka sortu eta gai honetan herritarrok dugun jarrearri buruzko ikerlan bat egitea erabaki zuten. Besteak beste, herriko kaleak behatu zituzten, jasotako informazioa mapa batean kokatu edota hondakinak kudeatzeko ohiturei buruzko galdetegia ere helarazi zieten LH1, LH2 eta DBH3

mailetako ikaskideei, aurrez landu eta adostutakoa. Interes nabarmeneko datu eta ondorioak jaso dituzte behaketa lan eta galdeketatik. Bereziki, frontoi ingurua, Laurok eta ikastola inguruan pilatzen dira hondakin gehien. Halere, "gutxiengoak esan du hondakinak lurrera botatzen dituztela". Hortxe kontraesana, erantzun

**"FRONTOI
INGURUAN, LAUROK
ETA IKASTOLA
INGURUAN
PILATZEN DA
HONDAKIN GEHIEN"**

horiek ez datoz bat gero kalean ikusten denarekin.

Erantzunetako datuak kontuan hartuta ondorioetara ere heldu dira; "gehienek zilar paperean eta tuperrean ekartzen dituzte hamaiketako eta askaria; gehienek jostailuak, liburuak, arropa berrerabiltzeko ohitura dute. Hondakinak murrizteko gehienek

**"UDALETXEARI
BAIMENA ESKATU
ETA ADIERAZITAKO
TOKIETAN
KARTELAK
JARRIKO DITUGU"**

hondakinak berrerabili egiten dituzte".

Emaitzak kartulinetan islatu zituzten ikasgelan. Horrekin batera, "BM, laurok, ikastolan, frontoian, baso eskolan eta Potxoenean kartelak jartzea erabaki genuen" eta ohitura okerrak zuzentzeko oharrazpen esaldi bana haietako bakoitzean; "ez izan alferrontzia, erabili zaborrontzia" edota "ez bota hondakinik lurrera, hemendik itsasora doaz" gisakoak. Gaia denon ardurapekoa izanda, "mezua zabaltzea" nahi zuten eta horregatik aurkeztu nahi izan ziguten lanketa. Horrez gain, "hemendik aurrera, udaletxeari baimena eskatu eta adierazitako tokietan kartelak jarriko ditugu", jakinarazi zituzten.

Amaitzear duten 2025-26 ikasturtean aurkeztu digute proiektu hau LH2koek. Larunbaterako Udarregik antolaturiko Ikastola Egunean parte hartuko dute, gainerako ikaskideekin, langileekin eta gurasoekin batera.

Ikastola Eguna

Ekainak 6, larunbata
09:45 LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

11:00-12:00 DBHko ikasleen erakusketa Ikastolako laborategian.

11:00 LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

12:00-14:00 Kilometroetako arroparen salmenta postua.

12:15 DBHko ikasleen jolasak Ikastolan.

12:30 HHko musika saioa (Mikel Laboa Plazan eta euria egingo balu Ikastolako frontoian).

14:00 Bazkaria frontoian.

15:30 LH6ko ikasleen kantaldia.

16:30-18:45 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.

Oharra: Haur Eskolako erakusketa Sutegin.

Antolatzailea: Udarregi ikastola.



Jakoba Errekondo, Markel Arriolabengoa eta Iñaki Etxebeste, liburuaren egileak. DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

"Orain dela belaunaldi bat arte, gure lehengai nagusiena egurra zen"

JAKOBA ERREKONDO PAISAJISTA, AGRONOMOA ETA DIBULGATZAILEA

3 hitzaurre, 15 adituren ekarpena, 100 ilustrazio, 116 espezie, 235 zuhaitz eta arbola aparten mapa, 1.096 argazki eta 5.000 hitzeko hiztegia. 'Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian' liburua tematika honi buruz egin den libururik osatuena da eta aste honetan aurkeztuko da.

IMANOL UBEDA

'Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian' liburuak 550 orrialde eta hari mutur asko ditu. Nola definitu, ezin asmatu nabil. Hiztegiak dio "entziklopedia giza jakintza-ren bilduma bat" dela. Zuhaitzen, arbolen eta basoen inguruko entziklopedia bat da akaso?

Bai, ados nago. Liburu honen sorrera hortik dator, hain justu. Euskaldunon kultura hain lotuta dagoenez zuhaitzei eta arbolei, egurrari eta zurari, ikaragarritzko jakintza dagoela hemen. Eta hori dena ez dago bilduta, sakabanatuta dago. Dagoena liburu zaharretan dago, edota liburu modernoxeagoetan. Baina oso sakabanatuta zegoen orain

arte, eta ez dakit ondo nola esan, urardotuta bezala zegoen, garrantziarik eman gabe.

Guk etxetik jaso dugu hau dena. Aitona basoa botatzen ibiltzen zen eta zerraria zen. Bi domeinu horiek zituen. Bat zen mendia – guk basoa ez dugu inoiz esan; guretzat mendia da-. Eta bestea, arbolak –

"GURE KULTURA ARBOLEI ETA ZUHAITZEI LOTUTA DAGO. JAKINTZA IKARAGARRIA DAGO HEMEN"

zuhaitza ere hitz modernoa da guretzako, guretzako beti izan dira arbolak eta egurra-. Nire obsesioa zen hau dena jendeak eskura eduki behar zuela nolabait.

Gure lurraldeko paisaia hobeto ezagutzea, hori ere izango zen abiapuntuetako bat, ezta?

"ERABILERARENA DA LIBURUKO ATAL INPORTANTEENA. HEMEN EGURRA DENERAKO ERABILI DA"

Zer gertatzen da? Edozeini galdetzen badiogu "Ezkie zer? Zer da ezkie? Ba Irlandan da abuztuko arbola. Zeltarrentzat da ez dakit ze jaungoikoaren ikur. Eta greziarrentzat...". Aizu, eta euskaldunontzat? Ezkie zer da edo izan da? Zertan erabili dugu euskaldunok? Hortik abiatzen da liburu hau. Euskaldunontzat zuhaitzak eta arbolak zer diren, zein diren azaldu eta agerian utzi ze unibertso erraldoia dagoen zuhaitzen eta arbolen inguruan. Hortik dator ikuspegi entziklopedikoarena. Batetik, jakintza orokorra batu dugu. Arbolak zer diren, basoek nola funtzionatzen duten... Eta bestetik, erabilerak. Erabile-rarena da atal garrantzitsuen. Denerako erabili delako. Orain dela belaunaldi bat arte, gure lehengai inportanteena egurra izan zen. Orain plastikoa da, baina lehen egurra zen. Hainbestearinoko erabilerak izan dituen, liburu hau hurbilketa bat baino ez da.

Eta horri lotuta, oso garrantzitsua da nabarmentzea gure kulturak zenbaterainoko lotura duen arbolekin eta zuhaitzekin. Ehundaka esaera daude arbolei eta zuhaitzei lotuta eta ehundaka bertso, olerki, abesti, esaera zahar...

Eta hiztegia. Liburuan jaso duzuen ez da txikia.

Nire obsesioetako bat izan zen. Glosario bat egin nahi genuen hasieran...

Zure liburu guztietan dago hiztegia osatzeko ahalegina.

Galtzen ari den gauza bat baita. Nik horregatik pasa ditut horrenbeste urte honekin. Nire liburutegian, edozein liburutan dago ertz batean hitzen bat apuntatuta. Glosario bat izan behar zuena (liburuan agertzen diren 300 hitzekin osatutakoa), hiztegi batean bihurtu da. 5.000 hitzetik gorako hiztegi bat aterra da. Baina ez da hiztegi itxi bat. Ikusiko dugu etorkizunean zer egingo dugun horrekin.

→ Eta azkenik bibliografia, etorkizunari begira ere oso inportantea izango dena. 500 erreferentzia batu ditugu. Euskal Herriko zuhaitzak eta arbolak ulertzeko 500 liburu badaude. Era horretan erakusten ari gara bide bat bada goela hor, gehiago ikertu nahi duenarentzako.

Hiztegian 5.000 hitzez osatutako ondarea jaso duzue. Horrek adierazten du zuhaitzek eta arbolek zer nolako itzala izan duten gure komunitatean.

Dena bide beretik joaten da. Etorkizunean, nire helburua litzateke hiztegi hori Interneten jartzea eta jendeak osatzen jarraitu ahal izatea. Antzeko gauza bat egin dugu basoekin. Mapa bat jarri dugu Euskal Herriko 235 baso edo zuhaitz apartekin. Klaro, guri iruditu zaizkigunak dira 235 horiek. Arakatzan hasten bagara, 1.000 arbola aparta ere badaude.

Jendea bere proposamenekin hurbilduko zaizue.

Gure asmoa da bide hori zabalik uztea. Liburu honek entziklopedia baten ikuspegia du: oinarrizko informazioa jaso dugu, eta horrekin irakurleak nahi duena egin dezake. Proposamenak egin, artikulua edo beste liburu batzuk abiatu, mapa interaktibo bat osatu... Nahi den guztia. Espeziei dagokionez, 106 jaso ditugu liburuan. Sakontzen hasten bagara, lorategietan-eta, beste hainbeste atera litezke. Baina horiek ez leudeke hain lotuta gure kulturarekin.

Liburua aholkuz beteta dator. 'Zuhaitzekin lanean' atalean esate baterako, gaztainondoaren txertaketa nola egin azaltzen duzu.

Eta zaintzak, eta inausketak, eta landaketak... Lehen esaten nuena, liburu bideak irekitzeko era bat da. Liburuak egin daitezke 'nik dakitena' azaltzeko. Eta horietakoak asko ditugu. Ez ditugu horrelako gehiago behar.



Liburuaren aurre-salmenta duela aste batzuk ireki zen. Ekainaren 8an hasiko dira banatzen. DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Botanikoak direnak ere asko ditugu. Badirudi mendira joan behar duzula liburuarekin, eta ari zaizkizu esaten "zuhaitz honek hosto bipinatuak ditu", eta hori irakurri eta blokeatu egiten zara. Beraz, ez du ezertarako balio. Liburu horiek botanikoak direnentzat dira bakarrik egokiak. Eta liburu hau berriz, jende guztiarentzat da, baita botanikoentzat ere. Hasteko, izenak ikasteko.

Hiru lagunen artean osatu duzue liburua. Nolako izan da idazketa prozesua?

Bakoitzak gure alorra dauka, 'gure mendia', esango genuke. Nirea paisaia kulturala da, eta horri lotutakoa. Markel Arriolabengoa mendi ingeniaria da eta mendiko lanak eta deskribapenak idatzi ditu. Iñaki Etxebeste biologoa da, eta zuhaitzetan eta zuhaitzen gaitzetan espezia-

lizatuta dago. Gutako bakoitzak bere alorra du. Baina nik beti esaten dudana bezala, guk dena ez dakigu. 15 pertsona jakintsuri eskatu diegu artikulu bana idatzi dezaten. Eta horrek kristoren indarra eman dio liburuari. Eta bada gauzak adierazteko era bat: guk ez dakigu dena.

Liburu hasiera bereziki oso korala da. Eta ahots bakoitzak dauka bere kolorea, bere jakintza.

Eta bakoitzak dauka bere amona. Eta hori oso interesgarria da. Adibidez, askotan galdetzen digute: ze diferentzia dago zuhaitzaren eta arbolaren artean? Espezialista batek esplikatzeko du aldea. Nik badut nire esplikazioa. Eta horregatik hasieratik zehaztu genuen titulua. Ez genuen 'Euskal Herriko zuhai-

tzak eta arbolak' izenburua jarri nahi. Aukeran nahiago dugu 'Zuhaitzak eta arbolak Euskal Herrian'. Ez daukagu sentsazio hori, arbolak hemengoak direnik. Hemengoa? Zein da hemengoa? Hemengoa ez da inor. Gu ere ez. Ba arbolekin, berdin-berdin. Orain hemen daude, baina hemendik milioi urte barru, Ozeanian daude igual.

Beste espezialista batek mendia, basoa eta oihanaren arteko diferentziaz idatzi du. Sagrario Aleman euskaltzainak esate baterako, egurra eta zuraren arteko aldea azaldu du beste idatzi batean.

Aurkezpen ekitaldiak

Ekainak 6, larunbata

• 16:00 Ziburuko Azokan.

Ekainak 13, larunbata

• Gasteizen, Olarizuko lorategi botanikoan. 10:30ean lorategi botanikoan ibilbide gidatua egingo da liburuaren hiru egileekin, eta 12:00ak aldera liburuaren aurkezpen ekitaldia, bertako egoitzan.

Ekainak 16, asteartea

• 18:30 Liburuaren aurkezpena, Sutegin.

"HIRU LAGUNEN ARTEAN OSATU DUGU LIBURUA. GUTAKO BAKOITZAK GURE ALORRA DUGU"

"GUK DENA EZ DAKIGU. 15 LAGUN JAKINTSURI ESKATU DIEGU ARTIKULU BANA IDATZI DEZATEN"

Lanbide Eskolaren mende erdiko ibilbideari gorazarre

Zubieta Lanbide Eskolakoek betetako 50 urteak jaialdi bidez ospatu zituzten maiatzaren 30ean.

Urtebeteko ospakizun zikloa joan den larunbatean boro-bildu zuten. Eguerdiko bazkari nahiz arratsaldeko musika emanaldien aurretik, goiz partean, jolas eta ikastetxeko ate irekien jardunaldiaren artean, mende erdiko ibilbide oparoan barrena bidaiatzeko aukera izan zen, eskolako areto nagusian proiektaturiko ia ordubeteko ikus-entzunezkoarekin. Ikastetxeak bost hamarkadotan izandako garapena marraztu zuten, proiektuaren bidelagun izandako

ikasle ohiek eta langileek. Gogoan izan, Aginaga izan zuen abiapuntu eskolak, parrokiaren lokaletan hasi ziren jardunean. Gerora, lekuz aldatu ziren egungo Zubietako instalakuntzetara, nahiz gaurkoarekin antzekotasun handirik izan ez. Zubietan hazten jarraitu baitu ikastetxeak gaur arte; hazten eta garatzen, bai instalakuntzen tamainaren ikuspegitik, baita, noski, marxan jarritako proiektu eta zerbitzuen ikuspuntutik ere. Sorreratik proiektu horren



Bazkari baten bueltan ospatu zuten mende erdiko ibilbidea.

kide izandakoen inplikazioa eta lankidetzeta nabarmendu zuten hitza hartutakoek. Geldiezina ziren lantaldeak izan ditu Zubieta Lanbide Eskolak, "beti berritzeko grina" zutenak. Etengabe aldatzen, garaian garaiko beharretara egokitzen joandako ikastetxea izan da Lanbide Eskola. Hortik sortu dira hainbat proiektu entzutesu. Emanaldi musikatu

izan zen, ikastetxeko irakasleen musikarien kontzertuarekin hain zuzen.

"IKASTETXEAK 50 URTEOTAN IZANDAKO GARAPENA MARRAZTU ZUTEN"



Urtemugako proiektio musikatuaren amaierako txaloak.



50. urtemugako ikus-entzunezkoa musikaturiko irakasle taldea.



"Oaintxe in deu" txarangarekin hedatu zuten festa giroa Zubieta erdigunera.



Lanbide Eskolatik Zubieta erdigunera kalejiran joan ziren.



Ane Lasa ezkerrean eta Katixa San Millan eskubian. Beat Eroak txapelketan hartu dute parte. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Hurrengo urtean berriro parte hartu nahiko genuke"

ANE LASA ETA KATIXA SAN MILLAN BEAT EROAK EKIMENEN PARTAIDEAK

"Larunbat Gauak" abestia egin zuten Beat Eroak txapelketarako, Buruntzaldean antolatu den rap lehiaketarako. Irabazi ez zuten arren, esperientzia polita izan zela onartu dute biek.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola izan zenuten Beat Eroak lehiaketaren berri?

Ane Lasa (A.L.): Gaztelekuko hezitzaileek esan ziguten parte hartzeko.

Nolatan animatu zineten lehiaketan parte hartzera, zerk bulzatuta?

A.L.: Bioi abestea gustatzen zaigunez, animatu egin ginen.

Katixa San Millan (K.S.): Bion artean hitz egin genuen eta ondo iruditu zitzaigun izen ematea erabaki genuen.

Jende gehiagori proposatu zenuen parte hartzeko ala hasieratik nahi zenuten biek bakarrik egin?

A.L.: Ni saiatu nintzen lagunei konbentzitzen, baina ikasi beharra zeukatela eta antzeko aitzakiak jarri zituzten, eta Katixari proposatu nion.

K.S.: Nik gogoan nuen parte hartzeko.

Nondik datorkizue rapa egiteko afizioa?

A.L.: Hasieran gauza berri bat zen, eta probatzeko egin nuen, baina gustatu zait rapa.

K.S.: Nik ez dut inoiz rapa egin, niri musika eta abestea gustatzen zait.

Nola bururatu zitzaizuen "Larunbat Gauak" abestiaren letra?

A.L.: Katixa eta ni pentsatzen hasi ginen. Erritmoa eta saltzeko errazena zen gai bizi bat pentsatu nahi genuen. Ideia horretatik abiatuta sortu zen diskoteka batean geundelaren ideia.

Nola izan da Odei Barroso eta Telmo Trenorrekin lan egitea? Ezagutzen zenituzten aurretik?

A.L.: Oso jatorrak izan ziren, eta asko lagundu ziguten rap honekin.

K.S.: Ez nituen ezagutzen. Lehenengo egunean Odei etorri zen, eta rapa sortzen lagundu zigun. Telmok basea egin zigun.

Nola izan zen abestia jendaurrean aurkeztea?

K.S.: Ni bakarrik joan nintzen Katixak ezin zuelako. Egia esan, hasieran lotsa ematen zidan, gainerakoak talde handitan zeudelako eta gu bi ginen, eta egun horretan ni bakarrik nengoen. Baina esperientzia polita izan zen eta nahiz eta ez irabazi, oso esperientzia polita izan zen.

Eta orain zer? Etokizunean rapa egiten jarraituko duzue ala abestiak sortzen jarraituko duzue?

A.L.: Niri asko gustatzen zait abestiak konposatzea eta baten bat konposatu dut, baina rapa ez dakit. Rapa gustatzen zait, baina musika generoren bat gehien gustatzen zaidana edo konposatzeko esan behar-ko banu, ez dakit rapa esango nukeen. Rapa gauza berri bat da eta gustatzen zait, baina sakontzeko esperientzia gehi-ago behar-ko nuke.

K.S.: Nik hurrengo urtean berriro parte hartu nahiko nuke Beat Eroak ikastaroan, ikastaroa baldin badago. Niri asko gustatu zait, eta zerbait berria izan da.

"OSO JATORRAK IZAN ZIREN, ETA ASKO LAGUNDU ZIGUTEN RAP HONEKIN"

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata
Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL Tel 943 73 20 27

943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL



650 Usurbil Bizi herri egitasmotik eratorritako "Hi bai artista!" proiektu pedagogikoaren sustatzaileak.

"Helburua izan da, Usurbil ikasgela ireki bat dela ulertzea"

Usurbil ikasgela irekian bilakaraziko duen egitasmoa aurkeztu dute egunotan; 650 Usurbil Bizi herri egitasmoa bisita gidatuetako bat, Usurbil Museo Irekia izenekoa "hi bai artista!" izeneko proiektu pedagogikoan jaso dute, ondare artistikoaren transmisioan eragiteko.

ARITZ LASARTE

LH nahiz DBHko ikasleek lantzeko egokitu dituzte bertako edukiak. Horretarako, Arazi kudeaketa, heziketa eta komunikazio arloko diziplina anitzeko lantaldearengana jo zuten. "Helburua izan da Usurbil bera ikasgela ireki bat dela ulertzea", Araziko kide Nerea Ibañezen esanetan. "Herriko plazak, muralak, eskulturak eta espazio publikoak ikas-kuntzarako abiapuntu bihurtzen dira, eta ikasleek artea ez dute museo itxi batean soilik kokatzen: kalean, herritarren eguneroko bizitzan eta komunitatearen memorian aurkitzen dute", azaldu zuen Ibañezek. Bere esanetan, "heziketa programa irakasleen eta ikasleen

beharretara egokitzetik sortu da". Lau proba saio egin dituzte, adin desberdineko ikasle taldeekin, "prestatutako edukien egokitasuna frogatzeko". Hiru atal ditu proiektuak. "Bisita egin aurretik material didaktikoa bidaltzen da eskoletara testuingurua ezagutzeko. Hainbat kontzeptu lantzen dituzte gelan". Bi-

"BISITA AURRETIK, MATERIALA BIDALTZEN DA ESKOLETARA TESTUINGURUA EZAGUTZEKO"

sita eguna dator gero; ibilbide gidatua eta tailerra, "artelanak behatu, interpretatu eta gero, haien emaitzak taldean partekatuzeko".

Egindako lanketa irakasleen beharretara ere egokitu dute, "batipat kurikulumak markatzen duen" horretara eta kurikulum horrek "ez du artea bakarrik txertatzen, baita

"SAIATU GARA ERAGILE GUZTIEN BALORAZIOAK KONTUAN HARTZEN, EMAITZA BOROBILTZEKO"

ahozko kompetentzia" ere. Horregatik, zenbait dinamika egin dituzte 6-16 urte artekoekin. LH-koekin bisita gidatuetan "formak, koloreak eta tainak" aztertu dituzte; DBH-koekin "sartu gara sinboloetan, euskal kulturaren berpizkundean, interpretazio kritikoan". Eskaintza kasuan kasuko adin tartera egokitzen joan dira. Ibilaldiaren ostean, Potxoenean "norberaren sormena garatzeko aukera" izan dute; alegia, "artelanak behatu, interpretatu eta gure iritzia" partekatzeaz gain, sormen lanok "berriz interpretatzeko aukera izan dute" eta hortik nor bere artelana sortzekoa.

Ikastetxeei ezagutaraztera

Dinamika horien bidez, egitasmo hau doitzan joateko aukera izan dute. Emaitza, irudiko txostenen jaso dute. "Ikasleentzat eta irakasleentzat materiala du. Baliabide osagarriak sortu dira bisitan erabiltzeko. Saiatu gara eragile guztien balorazioak kontuan hartzen, emaitza borobiltzeko", Araziko kideak azaldukoaren arabera. Arazikoen proposamena herriko ikastetxeekin probatu da, bai Udarregi ikastolako zein Aginagako eta Zubietako eskoletako ikasleekin eta irakasleekin. "Eskerrak luzatu nahi genizkieke herriko ikastetxeei, beraiekin proiektu hau esperimintatzeko aukera izan dugulako", nabarmendu du Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. Bere esanetan, "guretzako ere erronka handi bat da, hitz egiten ari baikara publiko berri batentzat, beste erregistro batzuetan. Oso erronka erakargarria izango da hau ere". Proiektua Euskal Herriko ikastetxeei ezagutaraztekoak dira. "Seguru nago, erantzun positibo bat izango duela. Euskal Herriko ikastetxeek izango dute aukera bikain bat, euskal artea ezagutu, bizitu, sormena landu, esperimintatu... hori dena Usurbil- en egitekoa".



Xiberoko Botzak irratiko langileak, diru bilketaren berri ematen. QR kodearekin crowdfunding-eko esteka eskura daiteke.

Xiberoko Botzak diru bilketa abiatu du bere estudioak berritzeko

Berritze lanek 70.000 euroko kostua izango dute. Usurbilgo lagun talde batek diru bilketa bat sustatuko du egunotan.

IMANOL UBEDA

Duela 20 urte inguru, Xiberoko Botza Mauleko (Zuberoa) Victor Hugo kalean ezarri zen, eta ordutik ez da berritze lanek egin. Isolamendua hobetu nahi dute uda partean eta, bide batez, bestelako konponentak egin nahi dituzte.

Berritze lan hauek guztira 70.000 euroko kostua izango dute. Diru bilketa egiteko, crowdfunding kanpaina bat antolatu dute. *HelloAsso* webgunean aurki daiteke horretarako esteka zuzena: labur.eus/h4qlnzzv

Usurbil eta Zuberoa, eskutik

Usurbil eta Zuberoako herri ekimenen arteko harremana aspaldikoa da. Bertako kuadrilla batek urteak daramatza Zuberoa aldean sagardo afariak antolatzen. Usurbildik eramaten dute jatekoa, edatekoa eta afaria aurrera ateratzeko eskulana. Azkenaldian, afariaren

mozkinak Seaskako Integrazio Batzordera bideratzen dira. Baina aurretik, Lurzaindia egitasmoa sustatzeko edota Xiberoko Botza babesteko baliatu izan da afari solidarioan jasotakoa.

Kuadrilla horren bueltan dabilta Iñaki Agirresarobe, Lontxo Zubiria eta Kerman Rekondo. Oraingo honetan, Usurbilen eta inguruetan ari dira Xiberoko Botzaren kanpaina sustatzen. Baten batek ekarpenik egin nahiko balu, crowdfunding bidez egin dezake (argazkiko QR kodea

**"DIRU EKARPENA
SANTIXABEL JAIK
BITARTE EGIN AHAL
IZANGO DA.
BERRITZE LANAK
UDAN EGINGO DIRA"**

telefono mugikorrarekin eskaneatuz). Edo aukeran, diru ekarpen hori Iñaki, Lontxo eta Kermanen bidez egin ahal izango du. Santixabel jaiak bitartean arituko dira zeregin honetan. Beraz, orain da Zuberoako irratia laguntzeko unea.

Berritu beharrekoak

70.000 euroko diru bilketa lan hauek egiteko bideratuko da: sabaia, zorua, isolamendua, arotzeria, berogailua, pintura, instalazio komunak, altzariak. Sos bilketarako, crowdfunding kanpaina bat abiarazi dute *Hello Asso* izeneko web orrialdean: labur.eus/h4qlnzzv

Berrikuntza lanak uda honetan egingo dira.

Maulen sortua

1982an Maulen sortua, Xiberoko Botza irratiko komunitario bat da, zuberotarrez mintz den tokiko hedabidea. Zuberoan emititzen da. Bere webgune propioa du, xiberokobotza.eus, sare sozial nagusietan topatuko duzue eta Youtuben ere kanal propioa du: www.youtube.com/@xiberokobotza2732

Arartekoarentzako gutuna sinatzeko deia

Iaztik, Usurbilgo anbulatorioak pediatria zerbitzu duina izatea eskatzen ari diren gurasoek duela astebete jakinarazi zuten moduan, anbulatorioko zerbitzu hori kakotsen artean "berrezarri" dela zioten bai baina "ordu murritzuan, egonkortasunik gabe eta jarraikortasunik bermatu gabe". Horregatik, urrats berria ematea erabaki dute. Arartekoari gutuna bidaltzekotan dira, idatzia sinatzeko prest dauden herritar guztien izenean. Horretarako, Oiarde kiroldegian, anbulatorioan nahiz Sutegi udal liburutegian jarri dituzte sinadura orriok. Ekainaren 5era arte eman ahalako zaio atxikimendua gutun horri.

Zerbitzuak urteotan izandako gorabeheren berri jaso dute idatzi horretan. Horien artean, nabarmentzeko datu bat; "2025eko apirilaren 1etik urtebeteko epean, haurrak artatzeko eta diagnostikatzeko prestakuntza duen profesional baten presentzia 98 lanegunetan bakarrik bete da. Hau da, urteko 261 lanegunetik %37an". Ondorioz, azken urtean, "gure herriko haur bakoitzak 1,03 orduko arreta jasotzeko aukera baino ez du izan gure herriko anbulatorioan".

Egoera hori Usurbilgo 0-14 urte arteko 663 haurrei eta gaztetxoei eragiten ari zaiola ohartarazi dute baina ez haiei soilik. Izan ere, "gure herrian eskaintzen diren lehen mailako arreta zerbitzuen okertze sistematikoa da", salatu dutenez.

Hiru eskaera

Testuinguru horretan, Arartekoari hiru eskaera egin nahi zaizkio: batetik, "egoera berehala azter dezala; bigarrenik, "Osakidetzari informazio gardena eta zehatza eskatu diezaio; eta, azkenik, "Usurbilen osasun arreta zerbitzu egonkor eta nahikoa bermatzeko eskuhartzeko irmoa bultza dezala".



Instagram bidez jaso dezakezue Ernai Usurbilen berri; @ernaiusurbil helbidean, hain zuzen.

"Usurbilen prest gaude bulkada hori emateko"

Urtebeteko hausnarketa, eztabaida eta lanketa prozesua borobildu zuen Ernai gazte antolakundeak maiatza hasieran Bergaran eginiko laugarren kongresuaren amaiera ekitaldian. Bide horrek emandakoa partekatu nahi izan du lerroon bidez, Usurbilgo gazteen bilguneak.

ARITZ LASARTE

Herriz herri hedatutako parte hartze prozesutik, hurrengo lau urteotarako bide-orria diseinatu nahi izan du Ernaik, "askapen mugimenduko gazte antolakunde bezala, nolakoa izan beharko lukeen" definitzeko. Bide horretan, jakinarazi dutenez, hizpide izan dute egungo testuinguru soziopolitikoa, "gatazken ondorioen konponbidetik, hegemonia lehiatzen ari garen une honetan, ezker independentismoan gorakada ematen ari dela eta nazio bulkada bultzatu nahia" hartu dute ahotan edota militantzia eredu bera ere bai. Azken gai horri dagokionean, "zer nolako Ernai, antolaketa eredu behar dugun gaur egungo fase honi lotuta, benetan erantzuteko behar dugu nazio bulkada horri".

Urtebeteko lanketaren ostean, bi konpromiso nagusietan berretsi da Ernai; "Euskal Herriarekiko dugun konpromiso horretan nazio askapen mugimenduan eragiteko eta bestetik, gazteekiko dugun konpromisoan. Gazte antolakunde garen heinean, gazteen beharrak erdigunean jarri nahi ditugu", abiapuntua argi izanda; "Ernai dela gazte askapen prozesura batu eta balio independentistetan gazteok politizatuko dituen eragile bakarra". Misio hori

"GAZTEEN BEHARRAK ERDIGUNEAN JARRI NAHI DITUGU"

gaurkotu dutela jakinarazi du Ernaik.

"Garaiak borroka eskatzen du"

Horretarako zer nolako gazte antolakunde izan hausnartu dute. "Ernaien izaera definitzen dugu zentratu eta zabal gisan. Zentratua, nazio auzia erdigunean kokatzeko gai garelako eta zabala, kezka eta arazo guztiak politizatzeo aurkitu behar dutelako gazteek etxe hau beraiena". Bilgune horretatik kezka, behar eta nahi

"GAZTEONTZAKO ETXEA IZAN BEHAR DUGULA ALDARRIKATZEN DUGU"

guztientzako konponbidea nazio burujabetza dela berretsi du Ernaik. "Bulkada bat behar du Euskal Herriak, orain-txe baliabideak baditugulako horretarako. Amesten dugun Euskal Herria feminista, sozialista eta euskaldun horren bidean, norberak bere eremutik bere alea jarrita denok gara gai antolakunde osatzeko". Aterabidea eraikitzeo lan partekatu horretan, "geu gara alternatiba, gazte oro".

Hortik dator abiarazi duten kanpainaren aldarria; "garaia borroka eskatzen du" izenekoa. Gazteek bizi duten testuinguruari keinua egiten dio. Izan ere, "testuinguru zapuztu batean bizi gara gazteok. Etor-kizuna arrotza eta iluna irudikatzen dugu eta honen aurrean, Ernai gazteontzako etxea izan behar duela aldarrikatzen dugu, babesa, indarra eta espazio bat aurkitu behar duelako gazte orok eta espektatiba gabezia horren aurrean, eskaintza erreal eta integral bat eskaintzen delako antolakundeak".

"Gazteok gara alternatiba"

Ernai "Euskal Herria askatzerantz eraman nahi" duen gazte antolakunde izan nahi du. Horretarako, eragilea bera hedatu nahi dute baita Usurbilen ere. Azken urtean, Buruntzaldeko Independentzia Eguna egin, ehun bat gazte (aspaldiko parte hartze handiena) Topagunera joan edota Sagardo Eguneo karpagune jendetsua antolatu ostean, "nahi diogu egin Usurbilgo gazte orori deia, hainbat espazioetan parte hartzeo bakoitzak bere aukera eta konpromisoetatik. Garrantzitsua da denon artean gorpuztea borroka hau". Usurbilgo Ernaitik diotenez, "garaia borroka eskatzen du. Usurbilen prest gaude bulkada hori emateko. Gazteok gara alternatiba" eta horretara batzera deitu dute; "Usurbilen Ernai gara eta Ernai gaude".



Aurreko astean egin zen zozketa Andoaingo Basteron.

Zortzi saritu, gidabaimena euskaraz ateratzeagatik

Buruntzaldeko udalek eta autoeskolek sustaturiko kanpainari esker, zortzi lagun saritu dituzte; tartean Saray Hernandez Etayo herritarra.

ARITZ LASARTE

Buruntzaldean gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzea saritu egiten dute eskualdeko autoeskola hainbatek eta udalek. Horretan dihardute azkeneko hamasei urteotan, alor hau ere euskalduntzen. Iaz, ahalegin hori egin zuten artean, hau da, gidabaime-naren atal teorikoa euskaraz prestatu eta gainditu zuten artean, 400 euroko zortzi sari zozketatu zituzten aurreko astean, Andoainen. Eskualdeko udalerrri bakoitzean dagoen autoeskola kopuru adina saritu izan dira; Andoainen bi, Hernanin hiru eta Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen saritu bana. Saray Hernandez Etayo izan da udalerrri honetako, Usurbilgo saritua.

Eskertza

Orain artekoari buruzko balantze gozoa egin zuten. "Azken urte hauetan guztietan, herritarren partaidetza oso handia izan da. 1.300 herritarrek baino gehiagok hartu dute parte eta zentzu horretan,

bilatutako helburua lortu da; eremu honetan ere, euskararen erabilpena sustatzea".

Halere, parte hartzea murrizten joan dela ohartarazi dute. Aurtengo zozketara etorrita, 69 lagunek parte hartu dute aurtengo deialdi honetan, haien herena, 20 Usurbilgoak izan dira. Zozketaren amaieran, saridunak zoriontzerekin batera, urteotan guztietan gidabaime-na euskaraz prestatu eta eskuratzeko ahalegina egingo dako ikasleak edota eskualde mailako egitasmo honekin bat egindako autoeskolak eskertu zituzten. "Azken finean, beraiek egin dute bidea eta lagundu dute gidabaime-naren atal teorikoa euskaraz ateratzea naturalagoa eta normalagoa izatea".

"AURTEN 69 LAGUNEK PARTE HARTU DUTE. HORIETATIK 20, USURBILDARRAK"

Sistema berria begi-bistan

Aurten seitik bostera murriztu da udalerrri parte hartzaileen kopurua. Izan ere, "Lasarte-Oriak ez du parte hartuko, abian jarri baitu, dagoeneko, dirulaguntza zuzenen sistema berria". Ibilbide luzeko egitasmo honetan aldaketa nabarmen bat txertzeraz doaz. "Orain arte, zozketen bidez egin dugun prozedura, aurreantzean dirulaguntza zuzenak izango dira". Horren harira, Buruntzaldeko hainbat udal hausnarketa lan betean direla jakinarazi zuen udalerriko euskara alorreko zinegotzi Marta Lasak, "Gidabaimena Euskaraz" egitasmoari jarraitpena nola eman zehazteko.

Lasarte-Oriako Udalak martxan jarri bezala, "eskualdeko beste udal batzuk ere hasiko dira dirulaguntza zuzenak ematen: Andoain, Hernani eta Astigarraga, kasu". Horri buruzko informazioa hurrengo hilabeteotan zabaldu asmo dute. Halere, ziurtatu dute "erraztasunak eskainiko zaizkiela gidabaime-naren azterketa euskaraz egiten duten herritarrei".

"Gidabaimena Euskaraz", datuetan

- Sustatzaileak: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak.
- Autoeskolak: Andoaingo Bengoetxea eta Vallina CAP; Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; eta Urnieta zein Usurbilgo Solozabal.
- Gidabaimena atal teorikoa euskaraz ateratakoen kopurua guztira: 69.
- Zozketan sarituak: Andoainen: Maren Jauregi, Nahia Gorostidi. Astigarragan: Enaitz Isasti. Hernanin: Eki Sanchez, Endika Recondo, Ane Livi Santacruz. Urnietan: Hegoi Lizaso. Usurbilen: Saray Hernandez Etayo.
- Saria: 400 euro.

Ekainaren 15ean, Sortalderen batzar orokorra

Sortalde, Usurbilgo energia berriztagarrien komunitatea kooperatibaren urteko ohiko batzar orokorra ekainaren 15ean egingo da, Txirikordako aretoan. 19:00etan hasiko da bilkura. Bazkideren batek batzarrean parte hartzeko ezina balu, "bere botoa eman dezake, ordezkari bat izendatuta. Horretarako, formularioa inprimatu eta ordezkariari eman diezaioke, batzarrean balia dezan". Formularioa eskatzeko helbide honetara idatzi behar da: info@sortalde.eus

Batzarrean parte hartzeko ere, izen-eman behar da aurretik: forms.komun.org/batzar-orokorra-sortalde-2026

Gai-zerrenda

1. Ongietorri eta irekiera.
2. 2026ko batzarrearen akta onartzeko bi bazkide izendatu.
3. 2025 kudeaketa plana onartzea.
4. 2025eko ekitaldi ekonomikoko kontuak eta emaitzen banaketa proposamena onartzea.
5. Kapital sozialari esleitutako interesen ordainsariaren berrespena.
6. 2026ko kudeaketa plana onartzea.
7. 2026ko aurrekontua onartzea.
8. Kontseilu Errektorearen bestelako komunikazioak.
9. Galde-eskeak.

Ostiral honetan, Sortalderen aurkezpena Mikel Laboa plazan

Usurbilgo Energia Komunitateak ekitaldia antolatu du ostiral honetarako. 20:00etan Mikel Laboa plazan, euria bada Sutegi atarian. Aurkezpen bikoitza egingo da; batetik, Sortalde bera aurkezteko baliatuko da, eta, bigarrenik, Agerialdeko teiltuan jarri eta martxan jarritako eguzki plaken instalazioari buruzko zehaztasunak eskainiko dituzte.



"Saiakera berezi bat egiten ari gara enpresak Beterrri Buruntza eskualdera erakartzeko", Jone Espillak azaldu digunez.

"Enpresetan lanean daudenen ongizatea bilatzen dugu"

JONE ESPILLA ARRIETA BETERRI BURUNTZAKO ENPRESA ETA SUSTAPEN TEKNIKARIA

2024an hasi ziren 'Lanaren Zentzua' proiektua enpresetan jorratzen. Dagoeneko hiru egin dituzte, eta aurrean, "gutxienez" bi egitea espero dutela aitortu du Espillak.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO Zertan datza 'Lanaren Zentzua' deituriko proiektua?

Enpresetan lanean diharduten pertsonen inplikazioa eta ongizatea bilatzen du.

Proiektuaren oinarria Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia eta Sustapen Sailetik dator. Haiek proiektu estrategiko gisan hartu zuten duela urte batzuk, eta inplikaturako pertsonen ongizatea areagotzea bilatzen zuten, baita talentu ihesa ekiditea ere enpresen lehiakortasuna areagotzeko.

Nongoak dira proiektuan parte hartu duten enpresak?

Guk zerbitzua Beterrri Buruntzako eta sektore gutxietako

enpresa guztiei ematen diegu, baina Gipuzkoa osorako zabalik dagoen ekimena da. Beste garapen enpresek eta beste mankomunitateek ere zerbitzu hori eskaintzen dute. Egia da erronka handi bat dagoela industrian, eta saiakera berezi bat egiten gabiltzala enpresak erakartzeko, oraindik zeregina dagoelako arlo horretan.

"PROIEKTUAREN ATZEAN MONDRAGON UNIBERTSITATEAK LANDUTAKO METODOA DAGO"

Adin tarte bati bideratuta dago proiektua?

Ez, adinean zentratu gabe. Barne mailan dugun lantaldearen lana ongizatearen parte izatea bilatzen da.

Gaur egun, laneko oinarriko beharrak bermatzea lortu nahi dugu, lanarekiko atxikimendua handitzeko, besteak beste. Lanaren zentzuaren atzean, Mondragon Uniber-

"HAUSNARKETA KRITIKOAN, ENPRESAK ZERTAN ERAGIN DEZAKEEN AZTERTZEN DUGU"

tsitateak landutako metodologia bat dago, eta lau ildo azpimarratzen ditu lanean ongizatea lortzeko: autonomia, eskumena, harremanak eta helburua.

Nola egiten duzue lan?

Guk erabiltzen dugun metodologian ezinbestekoa da enpresaburuak edo zuzendaritza taldeak prest egotea horrelako prozesu batean sartzeko; jasotako emaitza horien baitan lan egiteko aurretiko joera izatea. Dena den, langileek beharra ikusiz gero edo interesa izanez gero, beti dago aukera zuzendaritzari egitasmoa helarazteko.

Hori eginda, langileei galdetegi bat ematen diegu modu anonimoan erantzun dezaten, eta horretatik argazki bat ateratzen da. Grafiko bat da, eta enpresaren sektorea eta enpresaren irudia konparatzen dira. Aldagai bakoitzean ikusten da zein den enpresaren irudia.

Behin argazkia edukita, zuzendaritzarekin elkartzen gara, eta hausnarketa kritikoa deituriko prozesua hasten dugu. Bertan, enpresak zertan eragin dezakeen hausnartzen dugu. Guk beti Foru Aldundiaren dirulaguntzekin loturak egiten ditugu irten diren emaitzen proiektuak aurkeztu ahal izateko, eta dagokion lanketa martxan jartzeko.

Zenbat enpresatar iritsi zarete oraingoz?

Beterrri Buruntza mankomunitatearen ibilbide laburrean hiru enpresekin egin dugu lanketa. Gipuzkoan 40 bat inguru egin dira beste eskualde batzuk gu baino lehenago hasi zirelako. Guk 2024an egin genuen lehenengoa.

Zein helburu dituzue aurrean?

Gure helburua gutxienez aurrean beste bi egitea da, industrian izatea lortzen badugu primerakoa izango litzateke, lanketa egiteko aukera dagoen sektorea dela uste baitugu.



Eskualdean erreferentziazkoak diren emakume batzuk batu zituzten mahainguru batean. BETERRIBURUNTZA.EUS

'Konektatuz', eskualdeko emakumeen talentua ikusarazteko ekimena

ASPEGI Gipuzkoako emakume enpresari, profesional eta zuzendarien elkarteak eta Beterri-Buruntza makomunitateak 'Konektatuz' jardunaldien edizio berri bat antolatu zuten maiatzaren 21ean, Astigarragan.

IMANOL UBEDA

Konektatuz ekimena gogoe-ta-gune eta inspirazio-iturri izateko jaio zen, "emakumeen talentua ikusarazteko eta lurraldeko eskualdeetara hurbiltzeko", Beterri Buruntza mankomunitatetik aditzera eman dutenez. Proiektu hau bideratu ahal izateko, Laboral Kutxa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ezinbestekoa izan da.

Konektatuz jardunaldiaren edizio berriak Beterri-Burun-

tza eskualdean jarri zuen arreta. Duela bi aste Astigarragan eginiko topaketan, "70 pertsona baino gehiago bildu ziren esperientziak partekatzeko eta tokiko eremuan emakumeen lidergoari, ekin-tzailtzari eta talentuari buruz hausnartzeko".

Batu zirenen artean ziren Unai Andueza Iraeta Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoen diputatua, Miren Elgarresta Larralde Emakundeko zuzendaria, Maribel

Vaquero Montero EAJ-PNVk Espainiako Kongresuan duen bozeramailea, Patxi Ibaguren Beterri-Buruntza mankomunitateko lehendakaria, Jose Mari Iparragirre lehendakariordea eta hainbat udalerrietako ordezkariak.

Mahainguruan, erreferentzia gisa har daitezkeen sei emakume elkartu zituzten, seiak Beterri Buruntza eskualdekoak: Eider Manso Garmendia (kudeatzailea Bexen Medical eta Ferdoux Estructuras-en), María

Magdaleno Fernández (Magdasstudio eta Neboa Home-ren sortzailea), María Herrera Eizmendi (Herrekoreko garentea), Norexis Carilín Orellanas Araujo (Chimeneas Erre Berriko bazkidea), Silbia Roson Goikoetxea (Laboral Kutxak Hernanin duen bulegoko zuzendaria) eta Sonia Valor Cuadrado (Baihome Higiezinaren Zerbitzuen sortzailea).

Mankomunitatetik berri eman zuten, "parte-hartzaileek beren ibilbide profesionalak, beren sektoreetako erronkak eta emakumeen lidergoari buruzko ikuspegia partekatu zituzten, eta Gipuzkoako enpresa-sarearen barruan laguntza-sareak eta gertuko erreferentziak sortzearen garrantzia nabarmendu zuten". Bestelako kontuak ere hartu zituzten ahotan: ondorengotza prozesua, ekintzaitetasuna, talentuaren ongizatea, berrikuntza eta migrazio prozesu baten ondorengo integrazioa.

"Topaketa networking gune informal batekin amaitu zen", Beterri-Buruntzatik aditzera eman zuten. "Bertaratutako enpresari eta hizlarien artean ideiak eta esperientziak trukatu zituzten, giro hurbil eta parte-hartzailean".

ASPEGI eskerrak eman nahi dizkie Laboral Kutxari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Beterri-Buruntza mankomunitateari, mahaingurua babesteagatik, eta ekitaldian parte hartu zuten guztiei.

"EMAKUMEEN LIDERGOARI BURUZ HAUSNARTZEKO 70 LAGUN BATU ZIREN"

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Instagram Facebook

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



Hurbilago elkarteko kideak, kantinploren kanpainaren aurkezpenean.

Hurbilago ere Uxue Trailekin bat

Hurbilago elkarteak bat egingo du aurten, ekainaren 14ko 6. Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioarekin. Egun horri begirako kanpaina aurkeztu du egunotan; herriko saltokietan erostearen truke 250 kantinplora banatuko ditu, herritarrek ekimenarekin bat egitera animatzeko.

ARITZ LASARTE

Hurbilago elkarteak ere bat egingo du, ekainaren 14rako antolatutako 6. Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioarekin. Izan ere, aipatu herriko merkatarien eta ostalarien elkarteak bezeroak hitzordu horretan parte hartzera animatuko ditu. Horretarako, 250 oparirekin dator, albiste honi atxikitako irudiotan dituzuen 250 kantinplorekin. Elkartasun lasterketaren izen eta irudiarekin serigrafiatuak daude, Hurbilago elkartearenarekin batera. Horietako bat eskuratu dezakezue, datorren Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioan izena eman eta haren izen-emate agiriarekin Hurbilago elkarteko saltokiren batera jo eta bertan erosketaren bat egitearen truke. Kantinplora horiek agortu arte

eskuratzeko modua izango duzue. Gogoan izan, lasterketarako izena kronoak.com atarian eman dezakezue. Lerroetan dituzue proba horri buruzko xehetasunak; korrika nahiz paseoa eginez edota dortsal solidarioa eskuratuta parte hartu ahalko duzue, berriua datorren aurtengo edizioan.

Uxue Trail berriua

Izan ere, iaz eginiko bosgarren edizioaren ondotik, berriua dator 6. Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioa. Kiroltasuna eta elkartasuna uztartzen dituen ekimenaren antolatzailerik finkatu dute datorren ediziorako hitzordua; ekainaren 14an egingo da lasterketa, igande goizez. Izen-emateko epealdia zabalik da. Inskripzioak kronoak.com atarian

bidera daitezke. Hemen datoz aldaketak. Izan ere, edizio berriua izango da aurtengo Uxue Trail Mendi Lasterketa Solidarioarena.

Aurreko ediziora arte, diru ekarpenak egitea ahalbidetzen zuen dortsal solidarioaz gain, 20 kilometroko Uxue Trail Luzean, 11,5 kilometroko Uxue Trail Motzean edota 5,5 kilometroko Uxue Paseoan parte har zitekeen. Hartara, oinez nahiz korrika bat egin zitekeen,

**"HURBILAGOK
BEZEROAK
HITZORDU
HORRETAN PARTE
HARTZERA
ANIMATUKO DITU"**

Uxue Martin herrikideak duen Phelan-McDermid Sindromea ezagutarazi eta gaixotasun arraro hau ikertzeko laguntza biltzeko ekimenarekin.

Ibilbide bakarra

Aipatu moduan, aurtengo ediziorako berrikuntzak txertatu dituzte antolatzailerik. Sare sozialen bidez berri eman dutenez, ibilbide bakarra osatu ahalko da Andatzan barrena, 12 kilometrokoa, baina bi moduan parte hartu ahalko da; bakarka edo binaka. Horrez gain, aurreko edizioetan bezalaxe, Uxue Paseoarekin bat egiteko aukera ere izango da; hau da, oinez 5,5 kilometroko ibilbidea osatzeko. Lasterketan 18 urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute, 15 urtetik gorakoek ere bai, gurasoen baimena aurkeztuz gero. Uxue Paseoan edozein adin tartetakoak irten ahalko dira. Sariei dagokienean ere aldaketak izango dira. Aurreko edizioetan, helmugaraturiko Uxue Trail Luzean zein Motzeko lehenengo hiruna gizezko eta emakumezko saritzen zizuten. Oraingo honetan, ibilbide bakarra izanda baina banaka zein binaka parte har daitekeela jakinda, bederlatzi izango dira frontoiko oholtzan sarituko dituzten lasterkariak; batetik, banakako lasterketan hiruna emakumezko eta gizezko. Azkenik, binaka parte harturikoen artean, helmugaraturiko lehenengo gizezko nahiz emakumez osaturiko bikote bana eta lehenengo bikote mistoa ere sarituko dute. Lasterketarako dortsalak frontoian banatu asmo dituzte bezperan, hilaren 13an, 18:00-20:00 artean, nahiz lasterketa egunean, 08:00-09:30 artean. Berrikuntzak berrikuntza, ekimenaren izaera solidarioari eutsiko diote aurten ere. "Lasterketaren helburua ez da aldatu: Phelan-McDermid gaixotasunaren ikerketa bultzatzea. Parte hartuz, ikerketa aurrera daramazu. Animatu zaitezte!", egin dute deialdia.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkate. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen

dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

Pilota Usurbilen

Ekainak 4, osteguna. 19:00

Usurbilgo gazte mailako txapelketako partidak

- Pagazpe-Azkoitia
- Tolosa-Behar zana*

Ekainak 5, ostirala. 19:00

Nagusien Usurbilgo Binakako txapelketa, final laurdenak:

-Txoperena-Goikoetxea (Leitza)
-Olaizola-Iturbe (Zestoa-Zaldibar)

-Olaizola-Aranguren (Eple)
-Galartza-Galartza (Larraun)

Boleibol, ate irekiak

Benjaminek eta alebinek maiztaren 29an 16:30-17:30 boleibola probatzeko aukera izan zuten Oiardon. Infantilek (2013-2014), aldiz, ostiral honetan izango dute aukera, 16:30-17:30 bitartean Oiardon.

Ate-irekietarako izena eman behar da aurretik: labur.eus/cm77ar4s

Adin handiagokoek probatu nahi badute idatzi email bat (boleibola@gmail.com) edo deitu telefonoz (630 155 441).

Matrikulazioa Usurbil Kirol Elkartearen

Hurrengo 2026-27 denboraldirako matrikulazio epealdia ireki du Usurbil Kirol Elkarteak. Horretarako esteka honetako galdetegia betetzeko gonbita egin dute: <https://forms.gle/iH8jRPFcQeJ3M27>

Izena emateko azken eguna ekainaren 19rako finkatu dute. "Aurrerago, umeei bideratutako ate irekiak ere antolatuko ditugu jokalar berriek probatzeko aukera

izan dezaten. Interesa baduzu, adi egon gure sare sozialetan eta bertan emango dugu informazio guztia", jakinarazi dute Usurbil Kirol Elkartetik.

Argibide gehiago behar dituenak bideotatik jaso ditzaitez: usurbilkirolelkartea@gmail.com / 610 003 227. "Animatu eta zatoz eskubaloiaz gozatzerara!", egin dute gonbita.

HILDAKOAK



Axun Urretabizkaia

Otamendi

Maiatzaren 30ean hil zen, 94 urterekin.



Gabriela Salsamendi

Amunarriz

Maiatzaren 30ean hil zen, 98 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Egurrezko ontzietan ondutako sagardoaren Euskal Herriko 7. txapelketa

Ekainaren 14rako antolatu dute Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak Aginagako Eliza Zaharrea, Usurbilgo Udalaren, Eliza Zaharra Elkargunearren eta Euskal Sagardoaren laguntzaz. Parte hartu nahi duen sagardogile bakoitzak zortzi sagardo botila eraman beharko ditu Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren

Kooperatibaren egoitzara, ekainaren 11ko 13:00ak baino lehen. Txapelketara aurkezten denak dastaketan parte hartu beharko du. Saria jasotzeko unean eskuratzen duen sagardogilea bertan izango da, bestela hurrengoari emango zaio.

Informazio gehiagorako: sagardoa@ni.eus
630 938 027
alkartasuna.eus

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 05

USURBIL Sortalderen aurkezpena

Agerialdeko teilatuko eguzki plaken instalazioaren aurkezpena.

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 06

USURBIL Ikastola Eguna

09:45 LH1-2-3 jolasak Ikastolan.

11:00-12:00 DBHko ikasleen erakusketa Ikastolako laborategian.

11:00 LH4-5-6 jolasak Ikastolan.

12:15 DBHko ikasleen jolasak Ikastolan.

12:30 HHko musika saioa (Mikel Laboa Plazan eta txarra egingo balu Ikastolako frontoian).

14:00 Bazkaria frontoian.

15:30 LH6ko ikasleen kantaldia.

16:30-18:45 Ostolaza eta

Narbaiza trikitilariak.

Egun osoko jarduera.

ZUBIETA "Jo!" antzezlan

Antzezleak: Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal.

Sarrera: 5 eurotan usurbilkultura.eus plataforman.

19:00 Zubietako elizan.

IGANDEA 07

USURBIL 2. Kultur Azoka eta Arrobotxuloren aurkezpena

12:00-14:00 Dema plazan.



Azken kontzertuak Sutegin, Zumarten, frontoian eta Artzabalen egingo dira.

Ikasturte amaiera Zumarten

2025-26 ikasturtea borobiltzeko ikasturte amaierako kontzertu sorta antolatu du Zumarte Musika Eskolako:

Ekainak 10, asteazkena

18:30 Zumarte Txiki eta kantu teknikako ikasle gazteen kontzertua Sutegin.

Ekainak 12, ostirala

18:00 Musika eskolako talde instrumental txikien kontzertua Zumarteko sarrerako plazan.

Ekainak 13, larunbata

18:30 Talde instrumentalen kontzertua frontoian.

Ekainak 14, igandea

12:00 Zumarte eta Altsasuko saxo taldeen kalejira Artzabaldik abiatuta.

Ekainak 17, asteazkena

18:30 Zumarte Gazte abesbatza eta Kantu Teknikako ikasleen kontzertua Sutegiko auditoriumean.

Ekainak 18, osteguna

17:30 Musika Txokoa, Musika Mintzaira eta instrumentuetako ikasleekin kalejira Zumartetik abiatuta.

Antolatzailea: Zumarte.

"Jo!" antzezlan Zubietan

Ekainaren 6rako antolatu du Zubietta Lantzen elkarteak antzezlan, 19:00etan Zubietako elizan. Anduriña Zurutuza eta Beatriz Egizabal antzezleek parte hartuko dute. Sarrerak aurrez eskura daitezke 5 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman.

Hurrengo bisita gidatuak

Hemen, ekaina amaierara arte 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak antolatuturiko datozen bisita gidatuen berri:

Ekainak 6, larunbata

- 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore eliza.

Ekainak 7, igandea

- 11:00-12:30 Gerraren memoria ibilbidea bisita gidatua (gaztelaniaz).

Ekainak 20, larunbata

- 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua, organo erakustaldiarekin.

• Ekainak 24, asteazkena

- 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Ekainak 26, ostirala

- 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazio gehiago eta erreserbak:

650usurbilbizi.eus

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

Ordutegi gehiago eskuratu
nahi badituzu, NOAUA! eta
udaletxean aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu
www.noaua.eus webgunetik
edo eskaneatu QR kodea
zure mugikorrarekin!




**TREN ETA
AUTOBUS
ORDUTEGIA**

25/26



TARCE

noaua



OSASUN GIDA

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoiak.
- Emakumearen fisioterapia.

943 53 92 66
623 46 26 58

Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

irati.ibargoiengmail.com

@irati_ibargoieng_fisioterapia

Puntapax kalea 6B, behea ez. Usurbil 20170

www.iratibargoieng.com



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerria
20160 Lasarte-Oria



- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Usurbilgo Hortz Klinika

Zure irribarrea,
gure lehentasuna



943 370 878 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205



MABIOK

FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB · T. 608 671 925 / 943 372 658
mabiokfisioterapia.com

mabiok_fisioterapia

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

publizitatea@noaua.eus